

## **GASTEIZKO INGENIARITZAKO UNIBERTSITATE ESKOLAN GRADU AMAIERAKO LANA EGIN ETA DEFENDATZEARI BURUZKO ARAUTEGIA**

*Eskolako Batzarraren 2013/03/01eko ohiko bileran onartua*

### ZIOEN AZALPENA

Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak (861/2010 Errege Dekretuak aldatuak) III. kapituluan, graduko ikasketa ofizialei buruzkoan, xedatzen du ikasketa horietan gradu amaierako lan bat egin eta defendatu beharko dela eta beste atal batean gehitzen du gradu amaierako lanak 6 eta 30 kreditu bitartean izango dituela, ikasketa planaren bukaerako fasean egin beharko dela, eta tituluari lotutako gaitasunen ebaluazioa egitera bideratuta egon beharko dela. Dekretuak ez du lana egin eta ebaluatzeko beste xedapenik jasotzen eta hortaz, unibertsitate bakoitzak arautu beharko du bere autonomia erabiliz.

Testuinguru honetan, gradu amaierako lanak modu homogeneoan planifikatu eta ebaluatuko direla bermatuko duten irizpide eta prozedurak bateratzeko xedez, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak Gradu Amaierako Lana Egin eta Defendatzeari buruzko Oinarrizko Arautegia onartu zuen (2012ko ekainaren 19ko EHAA).

Oinarrizko arautegia garatu eta egokitu dugu Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolan ematen diren graduko titulazioen ezaugarrietara.

### **1. artikulua: Helburua eta aplikazio eremua.**

- 1.1. Arautegi -honetan Gasteizko Ingeniaritzako UEn ematen diren graduko titulazio guztietako GRALak definitu, egin, defendatu eta tramitatzeko jarraibideak biltzen ditu. Arautegi honek garatzen eta osatzen du UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2012ko maiatzaren 16an onartutako eta 2012ko ekainaren 19ko EHAAn argitaratutako oinarrizko arautegia. Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolaren arautegi honetan zehaztuta ez dagoen guztirako, oinarrizko arautegia aplikatuko da.
- 1.2. Arautegi hau eta etorkizunean izan ditzakeen aldaketak Gasteizko Ingeniaritzako UEko Eskolako Batzarrak onartu beharko ditu, kalitate sisteman txertatuko dira eta argitaratuta egongo dira eskolaren hedabideetan.
- 1.3. Eskolako Batzarrak Akademia Antolakuntzako Batzordeari eskuordetzen dio arautegi hau garatzeko ahalmena, horretarako prozedurak eta tramiteak definitzekoa, eta arautegia aplikatzean sor daitezkeen gorabeherak interpretatu eta ebaztekoa.
- 1.4. Arautegi hau osatuko da, besteak beste, ebaluazio sistemaren, kredituen transferentzia eta onarpenaren eta ikasleen mugikortasunaren arloetan indarrean dauden UPV/EHUko gainerako arau eta prozedurekin.

## **2. artikulua: Gradu Amaierako Lanaren izaera.**

- 2.1. Gradu amaierako lana gauzatzeko, ikasleek, banaka, proiektu, memoria edo azterlan orijinal bat egin behar dute, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, eta bertan gradu ikasketa aldian jasotako prestakuntza gaiak eta lortu dituzten ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatuko dira.
- 2.2. Gradu Amaierako Lana titulazioarekin lotutako gaitasun orokorrak aplikatzeari eta oro har, ikaslearen ikasketa arlokoak izango diren datu garrantzitsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatzeari begira egingo da, ikasleak gizarteari, zientziari, teknologiari edo etikari loturiko gai nabarmenei buruzko gogoeta egin eta iritzia eman dezan eta gogoeta eta iritzi horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izan daitezzen.
- 2.3. Gradu -Amaierako Lana unibertsitateko epaimahai batean aurrean defendatu eta epaimahai horrek ebaluatu ahal izateko, egiaztatu egin beharko da ikasleak ikasketa planeko gainerako gai guztiak gaindituta dituela eta hortaz, Gradu Amaierako Lanari dagozkion kredituak izan ezik, gradu ikasketen titulua lortzeko beharrezkoak diren gainerako kreditu guztiak dituela.
- 2.4. Gradu -Amaierako Lana Jabetza Intelektualari buruzko Legeak babestutako lana da. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lana egin duen ikaslea izango da, Gradu Amaierako Lana esleitzeko dokumentuan bestelakorik zehaztu ez bada, ikaslearen beraren onarpenarekin eta indarreko legerian xedatutako baldintzen arabera.

## **3. artikulua: Matrikula eta deialdiak.**

- 3.1. GRALaren -matrikula unibertsitateak matrikularako ezarritako epearen barruan egingo da edo ikasturtean zehar, baina beti hurrengo ikasturtearen hasiera ofiziala baino lehenago, UPV/EHUko oinarrizko egutegiari jarraiki, eta ikasleak GRALa defendatu ahal izateko baldintzak betetzen dituenean. Matrikula egiteko, ikasleak ordaindu beharko ditu lanaren kreditu kopuruari dagozkion prezio publikoak.
- 3.2. Matrikulak eskubidea emango dio ikasleari ikasturte bakoitzean bi deialdi ofizialetara aurkezteko, Gobernu Kontseiluak onartutako egutegi akademikoan zehaztutakoarekin bat. Ikasleak lana ez badu defendatzen ikasturterako ezarritako deialdietan, edo suspenditzen badu, hurrengo ikasturtean berriro egin beharko du matrikula.
- 3.3. Ikasleek -gradu amaierako lana EAEko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi duten zehaztuko dute. Atzerriko hizkuntzaren batean egin nahi badute, eskolako Akademia Antolakuntzako Batzordearen onospena izan beharko dute.
- 3.4. GRALen defentsak ikasturtean zehar banatuko dira.
- 3.5. Gradu -Amaierako Lanaren ebaluazioaren akta Unibertsitateko Ebaluazio Arautegiari jarraiki itxi beharko da eta epaimahaiko idazkariaren ardura izango da akta behar bezala betetzea eta defentsatik 24 orduko epean administrazio zerbitzuei helaraztea. Horrez gain, eskola zuzendariari dagokio artikulua honetan ezarritakoa betetzen dela zaintzea.

#### **4. artikulua: Zuzendaria, hura esleitzea eta lanaren gaia aukeratzea.**

- 4.1. - GRALa zuzenduko du ikaslearen titulazioan irakasten duen irakasle batek, edo, bestela, Gasteizko Ingeniaritzako Ueri atxikitako beste irakasle batek. Zuzendariak azalduko dizkio ikasleari lanaren ezaugarriak, ikaslea gidatuko du lanean zehar eta zehaztutako helburuak betetzen direla zainduko du. Era berean, jarraipena egingo dio lanari, eskolako Akademia Antolakuntzako Batzordeak ezarritako prozeduraren arabera. Defentsaren aurretik, zuzendariak GRALari buruzko txosten idatzia egingo du eta ikasleari eta epaimahaiari helaraziko die.
- 4.2. - Gradu amaierako lanak zuzendari bat baino gehiago izan ahalko ditu.
- 4.3. - Era berean, GRALa zuzendu ahalko dute unibertsitateari lotutako doktoreek, baldin eta gradu horretan irakasten duen edo Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolari atxikita dagoen beste zuzendarikide bat baldin badago.
- 4.4. - Ikasleak gradu amaierako lan osoa edo zati bat UPV/EHU ez den erakunde baten egiten badu, praktika hitzarmen baten barruan, gradu amaierako lana unibertsitateaz kanpoko pertsonak zuzendu ahalko dute baina kasu horretan 4.1. ataleko baldintzak betetzen dituen zuzendarikide bat egon beharko da.
- 4.5. - Ikasturte bakoitzaren hasieran titulazio bakoitzeko koordinatzaileak titulazioan irakasten duten irakasleen zerrenda bidaliko dio Akademia Antolakuntzako Batzordeari, ofizioz izenda dezan GRALaren zuzendari edo zuzendarikide bat hala behar den kasuetan.
- 4.6. - Gasteizko Ingeniaritzako UEko irakasle batek uko egin ahal izango dio GRALaren zuzendaria izateari hasita dagoen ikasturtean dagoeneko sei GRALen zuzendaritza esleiturik badauka. Kasu horretan Eskolako Akademia Antolakuntzako Batzordeak ofizioz esleituiko dio GRAL horren zuzendaritza lanaren gaiari gehien hurbiltzen zaion eta zerrendako hurrenkeraren arabera dagokion irakasleari.
- 4.7. - Honako hauek proposatu ahal izango dituzte GRALen gaiak: ikasleek eurek, eskolan irakaskuntza daukaten sail atalek eta Gasteizko Ingeniaritzako UEekin honetarako hitzarmena egin duten enpresa edo erakundeek. Era berean, GRALa mugikortasun programa baten barruan egingo duten ikasleek ere proposatu ahal izango dituzte gaiak; halakoetan kanpoko unibertsitatean GRALaren zuzendari edo arduradun izango den irakaslearen onspen idatzia beharko da. Proposamenak egiteko prozedura Gasteizko Ingeniaritzako UEko Akademia Antolakuntzako Batzordeak ezarri eta aldatzen du, eta arautegi honetako 1. eranskinean dago.
- 4.8. - Hauxe izango da prozedura GRALerako proposamenak aurkeztu eta onartzeko:
  - Proposamena 1. eranskinaren arabera osatu eta zuzendaritzaren idazkaritzan utzi.
  - Eskolako Akademia Antolakuntzako Batzordeak onspena eman.
  - *Interesdunei proposamena onartu dela jakinarazi.*
  - *Eskolako web orrian jarri.*
- 4.9. - Akademia Antolakuntzako zuzendariordeak argitaratuta izango ditu ikasturte osoan zehar aztertutako eta onartutako GRAL proposamenak, eta zehaztuko du zeintzuk dauden esleituta eta zein hizkuntzatan egin eta defendatu daitezkeen. Datu horiek astero eguneratuko ditu.

- 4.10. - Proiektuei publizitatea emateko, eskolako zuzendaritzak ikasturtea hasi aurretik eta irailaren 30a baino lehen, sail guztiei eskatuko dizkie beren proposamenak, eskolako web orrian argitaratzeko.
- 4.11. - Graduako ikasle kopuruarentzako proiektu kopuru egokia eskaintze aldera, eskolako Akademia Antolakuntzako Batzordeak sailei proposatuko die eskaini behar duten proiektu kopuru gutxienekoa. Eskolako Akademia Antolakuntzako Batzordeak ikasturteko lehen astean egin beharko du proposamen hori.
- 4.12. - Proiektuak esleitzeko 2. eranskinean azaldutako prozedurari jarraitu beharko zaio.

## **5. artikulua: Epaimahaia.**

- 5.1 - GRALaren zuzendariak proposatuko du nola eratu behar den epaimahaia. Epaimahai bakoitzak gutxienez kide hauek izango ditu: burua, idazkaria eta epaimahaikide bat. Gutxienez bi sail desberdinetakoak izango dira. Gainera, ordezeko kide bat ere izango da. Bai kide titularrak eta bai ordezekoa eskolako irakasleak izango dira.

## **6. Gradu Amaierako Lanaren aurkezpena eta defentsa.**

- 6.1 - Ikasleak GRALa amaituta eta matrikula eginda duenean, lanaren kopia aurkeztu beharko du paperean eta euskarri informatikoan Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolako Idazkaritzan, lanaren izaerak bestelako biderik eskatzen ez badu behintzat, eta eskolako Akademia Antolakuntzako Batzordeak zehaztutako ale kopurua entregatu beharko du, hark zehaztutako epearen barruan. Eskolako Idazkaritzak kopia informatikoa helaraziko dio epaimahaiko kide bakoitzari.
- 6.2 - Gradu amaierako lanaren defentsa egiteko ikasleak bertaratu egin beharko dute defentsa egiteko zehazten den tokira. Defentsa publikoa izango da, esleipen dokumentuan isilekotasun konpromisoa baimendu denean izan ezik. GRALaren epaimahaiko hiru kideak egon beharko dira defentsan.
- 6.3 - Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan egin, aurkeztu eta defendatu ahal izango da GRALa, bai eta graduan erabilitako beste edozein hizkuntzatan ere.
- 6.4 - Ikasle bakoitzak gehienez 30 minutu izango ditu gradu amaierako lanaren defentsa egiteko eta tarte horretan bere lanaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azaldu beharko ditu. Ondoren, epaimahaiko kideek egin diezazkioketen galdera, argibide, komentario edo iradokizunei erantzun beharko die. Epaimahaiko buruak defentsaren fase horiek ordenatuko ditu.
- 6.5 - Normalean GRALaren defentsak Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolan egingo dira, baina ikasleak enpresa edo kanpoko erakunde batean egin badu lana, bertara joan ahal izango da epaimahaia.
- 6.6 Kanpoko unibertsitate batean egin eta defendatzen diren GRALak unibertsitate hark emandako jarraibideen arabera aurkeztu, defendatu eta ebaluatuko dira.

6.7 Akademia Antolakuntzako zuzendariordeak egingo du GRALen defentsen egutegia.

## **7. artikulua: Ebaluazioa eta kalifikazioa.**

7.1 -Ikasleak lanaren nondik norakoak azaldu eta gero eta epaimahaiak eskatutako argibideak eman ondoren, epaimahaiak, atea itxita, kalifikazioa erabakiko du, zuzendariaren txostena ikusita eta eskolako Akademia Antolakuntzako Batzordeak emandako eta GRALaren gidan argitaratutako ebaluazio irizpideen arabera, bai eta titulua egiaztatzeko memorian zehaztutakoari jarraiki.

7.2 Ikasleak lana gainditzen ez badu, epaimahaiak lana hobetzeko iradokizunak jasotzen dituen txosten bat helaraziko dio ikasleari, lana berriz ebaluatzen denerako. Zuzendariari ere txostenaren kopia bat bidaliko zaio.

7.3 Kalifikazioa 0tik 10era bitarteko zenbakizko eskalan emango da, hamartar bakarrarekin, eta kalifikazio hori letraz ere adieraziko da:

Aurkeztu gabe (AG) -  
0 eta 4,9 artean: suspentso (S) -  
5,0 eta 6,9 artean: nahikoa (N) -  
7,0 eta 8,9 artean: oso ongi (OO) -  
9,0 eta 10 artean: bikain (B) -

Deialdi batean defentsari uko eginez gero, “aurkezteke” jarriko da.

7.4 “Ohorezko matrikula” eman ahal izango zaie 9,0 kalifikazioa edo altuagoa lortu duten ikasleei. Emango diren ohorezko matrikulen kopurua ez da izango ikasturtean gai horretan eta titulazio bakoitzean matrikulatutako ikasleen ehuneko bosta baino handiagoa. Ikasturte bakoitzaren amaieran eskolako Akademia Antolakuntzako Batzordea bilduko da epaimahaiko buruekin, eta, haiek proposatuz gero, ohorezko matrikula emango die gradu bakoitzean hala dagokien ikasleei. Gerta liteke ikasturte batean edo titulazio batean ohorezko matrikularik ez ematea.

7.5 Mugikortasun -programa batean egindako GRALak programa horietako arautegiaren arabera ebaluatuko dira.

7.6 GRALa kanpoko unibertsitate batean egindakoa bada, eta, beraz, hango sistemaren arabera kalifikatua, hango ziurtagiria jaso bezain laster, kalifikazio horri dagokion baliokide kuantitatiboa emango zaio, 7.3 atalaren arabera. Zenbakizko kalifikazioa jasotzeko, kalifikazioa hobetzeko edo ohorezko matrikula lortzen saiatzeko, ikasleak dagokion bertoko epaimahaiaren aurrean egin beharko du defentsa.

7.7 Gradu -Amaierako Lanen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak Unibertsitateko Ebaluazio Arautegiari jarraiki egingo dira, baina epaimahaia tartean dagoenez, ebaluazioaren lehenengo berrikuspena epaimahaiak berak egingo du; hurrengo instantzian ikastegiko Erreklamazio Batzordeak emango du ebazpena; ebazpen horren kontra, azkenik, gorako errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio unibertsitateko errektoreari.

7.8 Edozelan - ere, GRALaren kalifikazioak gai horretan matrikulatutako ikasleen espedientean sartu beharko dira urriaren 31 baino lehen.

## **8. artikulua: Arautegi hau interpretatzea eta aldatzea.**

- 8.1.- Eskolako Batzarrak, bere eskumenak eskuordetuta, ahalmena ematen dio eskolako Akademia Antolakuntzako Batzordeari Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolako GRALari buruzko arautegi hau garatu, aplikatu eta interpretatzeko. Era berean, arautegi honen eranskinak aldatzeko ahalmena ere ematen dio.
- 8.2.- Akademia Antolakuntzako Batzordeak GRALaren arautegia aldatzeko proposamenak egin ahal izango dizkio Eskolako Batzarrari.
- 8.3.- Era berean, hauek ere proposatu ahal izango dute arautegiaren testu osoa edo zati bat aldatzea:
- a) Gasteizko Ingeniaritzako UEko zuzendariak.
  - b) Eskolako Batzarreko kideen % 25ek.
  - c) Eskolako Ikasleen Kontseiluak.
- 8.4.- Aldaketak proposatzeko, txosten arrazoitua aurkeztu beharko zaio eskolako zuzendariari. Idazkiak aldaketa eskatzen duten pertsonen izenak eta proposatzen duten ordezkoko testua jaso beharko ditu. Lege Zerbitzuak txostena egin beharko du berresteko aldatutako testuak errespetatzen dituela UPV/EHUko GRALari buruzko arautegi orokorra (2012ko ekainaren 19ko EHAA), eta unibertsitateari buruzko gainerako arauak eta indarreko legeria, oro har.
- 8.5.- Proposamena aurkeztu eta hilabeteko epean, gehienez ere, biltzeko ezohiko deia egingo dio zuzendariak Eskolako Batzarrari, proposatzen den aldaketaz erabakia hartzeko. Proposamenak aurrera egingo du Batzarreko aldeko botoen gehiengoa lortzen baldin badu. Batzarrak ez badu onartzen arautegia aldatzeko proposamena, eskatzaileek ezin izango dute gai berari buruzko aldaketarik proposatu urtebeteko epean.

### **XEDAPEN IRAGANKORRA**

Eskolako Akademia Antolakuntzako Batzordeak epaimahai espezifikoko bat izendatuko du gradura egokitzeko mailetakoko ikasleen GRALak ebaluatzeko. Xedapen iragankor hau desagertuko da egokitze mailak desagartzearekin batera.

### **Azken xedapena**

Arautegi hau indarrean sartuko da Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolako Batzarrak onartu eta hurrengo egunean.

## I. Eranskina

<b>GRADU AMAIERAKO LANAREN (GRALa) PROPOSAMENA</b>	
GRALaren IZENA: Gradua:	
PROPOSATZAILEA: Ikaslea: Saila: Enpresa (eman enpresaren izena): Kanpoko beste erakunde bat (eman erakundearen izena):	
ZUZENDARIA: Kanpoko saila edo erakundea: ZUZENDARIKIDEA: Saila:	
GRALaren deskribapena.	
Proposatzailearen sinadura:	Eskolako    Akademia    Antolakuntzako    Batzordearen onespena.
Eguna:	Eguna:

## II. ERANSKINA

### GRADU AMAIERAKO LANA PROPOSATU, ESLEITU ETA DEFENDATZEKO PROZEDURA.

#### 1. Proposamenak aurkeztea.

- 1.1. GRALerako proposamenak egiteko I. eranskina bete behar da eta zuzendaritzaren idazkaritzan utzi.
- 1.2. Eskolako Akademia Antolakuntzako Batzordeak begiratuko du ea proposamenak betetzen dituen arautegian zehaztutako baldintza guztiak, eta hala bada, onespena emango dio hamabost eguneko epearen barruan, gehienez ere.
- 1.3. Akademia Antolakuntzako zuzendariordea arduratuko da aztertutako eta ontzat emandako GRALen proposamenak argitaratuta izateaz ikasturte osoan. Informazio hori astero eguneratuko da. Bertan datu hauek zehaztuko dira:
  - a) GRALa proposatu duen pertsonaren izena eta lanaren deskribapena.
  - b) GRAL hori zein hizkuntzatan egin eta defenda daitekeen.
  - c) Zuzendariaren izena, eta, hala dagokionean, zuzendarikidearena.
  - d) Ikasleren bati esleitu zaion ala ez (bai – ez).

#### 2. GRALaren esleipena

- 2.1. Proposatu eta onartu diren GRALen artetik, eskolako Akademia Antolakuntzako Batzordeak ikasle bakoitzari esleituko dio hark eskatutakoa. ikasle batek baino gehiagok aukeratzen dutenean GRAL berbera proposatu eta onartu direnen artetik, eskolako Akademia Antolakuntzako Batzordeak kasuan kasuko sailari galdetu ondoren, ikasle bakoitzari bere ezaugarriekin ondoen datorren lana esleituko dio. Era berean, gatazkarik sortuko balitz, eskolako Akademia Antolakuntzako Batzordeak ebatziko ditu behar bezala.
- 2.2. Ikasle batek GRAL bat proposatzen badu eta ontzat jotzen bada, berari esleituko zaio zuzenean.
- 2.3. Gradu Amaierako Lanaren esleipenak gehienez bi ikasturte iraungo du: esleitu den ikasturtea eta hurrengoa. Tarte horretan ikasleak lana aurkeztu eta defendatu ez badu, edo suspenditu badu, beste GRAL bat eskatu beharko du une horretan argitaratuta dauden proposamenen artetik.
- 2.4. GRALa esleitzeko ikasleak ezin izango ditu eduki 78 kreditu baino gehiago gaintitzeke.
- 2.5. Esleipen formala Akademia Antolakuntzako zuzendariordeak egingo du dokumentu batez. Bertan honako hauek zehaztuko dira: (1) GRALaren ezaugarriak, egindako proposamenari jarraiki; (2) ikaslearen eta zuzendariaren edota zuzendarikidearen izenak eta onarpen sinadurak; (3) isilekotasun konpromisoa, halakorik eskatu bada; (4) amaitutako GRALa argitaratzeko baldintzak; (5) GRALaren jabetza intelektuala partekatuko den ala ez; eta (6) lanaren defentsa egiteko azken eguna, eranskin honen 3.3 atalaren arabera. Esleipenaren jatorrizko dokumentua ikasleari emango zaio, eta



kopia bat Gasteizko Ingeniaritzako UEko idazkari akademikoak erregistratu eta artxibatuko du. Idazkaritzan artxibatutako kopia hori epaimahaiko buruari emango zaio GRALaren defentsarako.

### **3. GRALaren aurkezpena eta defentsa.**

Ikasleak GRALa amaitu eta matrikula egin eta gero, arautegi honetako 6.1 artikuluan zehaztutako dokumentuak aurkeztuko ditu eskolako Idazkaritzan, lana aurkeztu eta defendatu baino gutxienez astebete lehenago.